

**M<sup>a</sup> VICTORIA JOARISTI OLARIAGA  
ANDREA, OIARTZUNGO UDALAREN  
IDAZKARI NAIZENAK**

**ZIURTATZEN DUT:** Udal honen Osoko Bilkurako Batzarrak, 2020ko otsailaren 26an, beste batzuen artean, ondorengo Akordioa hartu zuela:

**“2020AN OIARTZUNEN AURREIKUSITAKO KULTUR EKITALDIAK  
ANTOLATZEKO HERRIKO ELKARTEEI DIRULAGUNTZAK BANATZEA ETA  
ORDAINKETAK ONARTZEA.**

Oiartzungo Udalak ematen dituen dirulaguntzak arautzeko Ordenantza 2018ko azaroaren 30eko GAOean argitaratu zen eta biharamunean sartu zen indarrean.

Aipatu Ordenantzan xedatutakoaren arabera, ohiko kultur ekitaldiak laguntzeko programa, Kulturaren dinamizazioa izeneko 4. lerro estrategikoan barneratu zen Oiartzungo 2019-2021eko Plan Estrategikoan.

Halaber, Udal Osoko Bilkurak 2019ko azaroaren 27an onartu zituen 2020an Oiartzunen aurreikusitako kultur ekitaldiak antolatzeke dirulaguntzak banatzeko oinarriak eta eskaerak egiteko emandako epean, 2020ko urtarrilaren 1etik 31era, 26 eskaera aurkeztu dira. Kultura Zerbitzuko arduradunak eskaerak aztertu eta puntuatu ondoren, 2020an aipatu dirulaguntzak herriko elkarteei banatzeko eta ordaintzeko proposamena aurkeztu du.

2020ko otsailaren 20an Kultura Batzordeak aldeko diktamena eman dio proposamenari.

Guzti hau kontuan hartuta, Udalbatzak honako erabakia hartu du:

**LEHENA:** 2020an Oiartzunen aurreikusitako kultur ekitaldiak antolatzeke dirulaguntzak herriko elkarteei banatzeko eta ordaintzeko proposamena onartzea, honela:

| <b>EKINTZA</b>                  | <b>PUNTUAK<br/>GUTIRA</b> | <b>ESKATUTA<br/>LAGUNTZA</b> | <b>LAGUNTZA</b> |
|---------------------------------|---------------------------|------------------------------|-----------------|
| ETXERAT BERTSO SAIOA            | 85                        | 2.450,00 €                   | 2.450,00 €      |
| ELIZALDE BERTSO BAZKARIA        | 54                        | 800,00 €                     | 800,00 €        |
| ELIZALDE KARROXA                | 42                        | 888,00 €                     | 888,00 €        |
| ORGANOZALEAK                    | 88                        | 3.000,00 €                   | 3.000,00 €      |
| OIDULTZ DULTZAINA               | 58                        | 2.530,00 €                   | 2.530,00 €      |
| HAURTZARO DT: DANTZARI<br>TXIKI | 59                        | 1.000,00 €                   | 1.000,00 €      |
| LABORE: ARTO ZURIKETA           | 40                        | 1.050,00 €                   | 1.050,00 €      |
| FLAUTA JAIALDIA                 | 41                        | 1.450,00 €                   | 1.450,00 €      |

|                                        |    |             |             |
|----------------------------------------|----|-------------|-------------|
| ELIZALDE G. E. SOINU ZAHAR<br>AURRESKU | 30 | 1.249,00 €  | 1.249,00 €  |
| ELIZALDE G.E. DANTZA                   | 41 | 175,00 €    | 175,00 €    |
| OLENTZERO LAGUNTZAILEAK                | 63 | 3.165,00 €  | 3.152,41 €  |
| OLARRI: EUSKAL JAIA                    | 52 | 3.140,00 €  | 2.601,99 €  |
| IBARGAIN MUSIKA ESKOLA                 | 71 | 5.599,00 €  | 3.552,72 €  |
| RAKETISTAK                             | 36 | 500,00 €    | 500,00 €    |
| GIRIZIA: SAGARDO EGUNA                 | 50 | 1.250,00 €  | 1.250,00 €  |
| ARTASO: BERTSO BAZKARIA                | 33 | 553,00 €    | 553,00 €    |
| AZMARRIN: HITZEN LIHOA                 | 71 | 8.176,00 €  | 3.552,72 €  |
| BIZARDIA: SOLASALDI MUSIKAT            | 49 | 1.950,00 €  | 1.950,00 €  |
| AZMARRIN: HITZALDIK                    | 33 | 1.500,00 €  | 1.500,00 €  |
| AZMARRIN: OIHARTZUN<br>FILOSOFIKOA     | 48 | 1.340,00 €  | 1.340,00 €  |
| UGALDETZO KT: PAILAZOAK                | 83 | 213,00 €    | 213,00 €    |
| LA ILUSION: GURE ARBASOAK              | 33 | 500,00 €    | 500,00 €    |
| METROKOADROKA: 21 AULKI                | 44 | 2.876,00 €  | 2.201,68 €  |
| MUNANIER: GARAGARDO                    | 90 | 3.000,00 €  | 3.000,00 €  |
| BERTSO ESKOLA: ANTZ. MUSIK             | 53 | 1.804,00 €  | 1.804,00 €  |
| BERTSO ESKOLA: 8KO TXIKI               | 35 | 463,00 €    | 463,00 €    |
|                                        |    | 50.621,00 € | 42.726,52 € |
| 1382                                   |    | ESKATUTA    | EMANDA      |

**BIGARRENA:** Dirulaguntzak ordaintzeko 43.250 €ko gastua onartzea, 2020 urteko aurrekontuko 1 0801.481.334.00.01.2020 diru-atalaren kontura (A-214/2020).

**HIRUGARRENA:** Oinarrietan xedatutakoaren arabera, lehen ordainketa, %80ari dagokiona, egitea; hau da, 34.181,22 € ordaintzea.

Gainontzeko %20a (8.545,30 €) interesatuek gastuak justifikatu ondoren ordainduko dira.”

Eta horrela jasota gera dadin ematen dut ziurtagiri hau, azaroaren 28ko 2.568/1.986 Errege Dekretuaren 206 artikularen arabera, Alkate Jaunaren agindu eta oniritziarekin batera, Oiartzunen, 2020ko otsailaren 27an.

O.I.  
ALKATEAK,